


DIOXINEN KONTROLA LEHENGAI ETA PENTSUETAN

Alemanian 2010aren amaieran eta 2011aren hasieran gertatutako ezbeharraren ondorioz (dioxinekin kutsatutako pentsuek Europar Batasuneko elikadura-alerta eragin zuten), Europako Batzordeak araudi berria argitaratu du aurtengo martxoan, animalien elikaduran erabiltzeko landare-olioen, koipeen eta horien eratorrien ekoizpen- eta erabilera-kontrola hobetze aldera.

AURREKARIAK

2010eko abenduan Alemaniako agintariek Saxonia Behereko (Alemania iparraldea) pentsu konposatuen ekoizle baten ohartarazpena jaso zuten. Bertan adierazten zen arrautzatarako oiloentzako zenbait pentsu-laginetan dioxinen kopuruak legez ezarritako mugak gainditzen zituela.



Ondoren egin zen azterlanaren arabera, kutsadura gertatu zen biodiesel-ekoizle batek gantz-azidoak animalien elikadurarako koipeen ekoizpenera desbideratu zituelako iruzurrez.

Desbideratze horrek ondorio larriak izan zituen elikakate osoan; izan ere, kutsaduraren ondorioz, dioxinak agertu ziren animalia-

jatorriko elikagaietan.

Alertaren ondoren, Alemaniako agintariek Europako agintariei proposamen bat igortzea ebatzi zuten, landare-olioetako, koipeetako eta horien eratorrietako dioxinak kontrolatzeko plan bat garatze aldera.

Azkenik, alemaniarren hasiera bateko proposamenari erantzuteko eta Europako Batzordean bidezko eztabaida egin ondoren, aurtengo martxoan argitaratu da 225/2012 Araudia (EE), 2012ko martxoaren 15ekoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 183/2005 Araudiaren (EB) II. Eranskina aldatzen duena, pentsu gisa erabiltzeko landare-olio eta koipe nahasiak saltzen dituzten saltokien baimenei dagokienez, eta olio, koipe eta horien produktu eratorriak ekoitzi, biltegitatu, garraiatu eta horietan dioxinak atzemateko irizpide zehatzei dagokienez.

Araudi berriak animalia-elikaduraren sektoreko operatzaileentzat dituen ondorioak

ONDORIO NAGUSIAK

Arau berriak aldaketa garrantzitsuak egin ditu Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 183/2005 Araudiko (EE) II. Eranskinean. Araudi horrek pentsuen higiene betekizunak ezartzen ditu.

Gogorazi behar da arau horretako II. Eranskina pentsuen lehenengo ekoizpenean esku hartzen ez duten enpresei (animalia-elikaduraren sektoreko operatzaileak) ezarri ahal zaiela. Atal horren baitan daude, ustiategiko beharriazek hala eskatuta, gehigarriak edo gehigarrien aurre-nahasketak (siloratzean erabiltzen diren gehigarriak salbu) erabiltzen dituzten abere-ustiategiak.

Aldaketa nagusiak aipatutako II. Eranskineko honako atal hauei dagozkie:

1. **Definizioak (atal berria)**
2. **Instalazio eta ekipoa**
3. **Ekoizpen**
4. **Dioxinen kontrola (atal berria)**
5. **Biltegiratu eta garraiatzea**

Legegintzako aldaketa

1. **“Definizioak”** izeneko atal berria gehitu zaio araudiari, zenbait kontzeptu definitzeko:

- ✓ **Sorta**
- ✓ **Landare-olioetatik eratorritako produktuak**
- ✓ **Koipe-nahasteak**

2. **Instalazio eta ekipoei** dagokienez, arauak ezartzen du **baimendu egin beharko direla honako jarduera hauek egiten dituzten establezimendu guztiak, pentsuetan erabiltzen**

diren produktuak merkaturatzeko:

- Landare-olio gordinak eraldatzea, 852/2004 Araudiaren aplikazio-esparruaren baitan daudenak salbu.
- Koipe-azidoen ekoizpen oleokimikoa.
- Biodieselaren ekoizpena.
- Koipeen nahastea.



3. **Ekoizpena** atalean bi zehaztapen berri gehitu dira:

- Animalia-elikagaietarako koipeak nahasten eta saltzen dituzten establezimenduek **fisikoki bereizi** beharko dituzte produktu horiek eta beste helmugaren bat dutenak (852/2004 betekizunak eta 2002/32/EE Zuzentaraukoak betetzen dituztenean izan ezik).
- Halaber, **etiketatzean argi ezarriko da produktuaren helmuga** (animaliak elikatzeko edo bestelako kontuetarako erabiltzekoa den). Jakinarazpen hori, behin ezarrita, inork ezin izango du aldatu.

4. Araudi berriak atal berria du: **“Dioxinen kontrola”**.

Atal honetako ekarpen nagusia da animalien elikadurako operatzaileek zenbait analisi derrigor egin behar izatea, dioxinen eta

Araudi berriak animalia-elikaduraren sektoreko operatzaileentzat dituen ondorioak



dioxinen antzekoak diren PCBen kopuru osoa egiaztatze aldera. Halaber, analisisien maiztasuna ezartzen da, enpresa-motaren arabera.

Enpresa-mota	Maiztasuna eta irizpideak
Landare-olio gordinen eraldatzaileak	Koko-olio gordinaren sorten % 100 Landare-olioetatik eratorritako produktu-sorten % 100, glizerola, lezitina eta gomak salbu Sorta: gehienez ere 1.000 tm
Animalia-koipeen ekoizleak	3. kategoriako koipearen edo eratorritako produktuen analisiak 2.000 tm-ko
Arrain-olioen ustiatzaileak	A) Sorten % 100, olioaren jatorria honako hau bada: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Arrain-olio gordinetik eratorritako produktuak, arrain-olio findua izan ezik. ▪ Kontrolik gabeko, jatorri zehatzik gabeko edo Baltikotik datozen arrantza-produktuak. ▪ Giza kontsumorako arrainen establezimendu ekoizleetatik datozen arrantzako azpi-produktuak, baldin eta EBren baimenik ez badute. ▪ Bakalada edo latxa tiranoa. B) Arrain-olio findua ez den arrain-olio gordinetik eratorritako produktu sorten % 100 (ateratzen direnak). C) A) motako arrain-olioa ez denean, azterketa 2.000 tm bakoitzeko. Sorta: gehienez 1.000 tm / 2.000 tm
Industria oleokimikoa eta biodieselarena	Koko-olio gordineko eta eratorritako produktuetako sorten % 100, honako hauek salbu: glizerola, lezitina eta goma, b) letran aipatu ez diren animalia-koipeak, c) letran aipatu ez den arrain-olioa, elikagaien industriatik berreskuratutako olioak eta pentsuetan erabiltzeko

Araudi berriak
 animalia-elikaduraren
 sektoreko
 operatzaileentzat
 dituen ondorioak



	nahastutako koipeak. Halaber, aipatutako produktuak eraldatzetik eratorritako produktu-sorten % 100 aztertuko da, glizeroletik, lezitinatik eta sojatik eratorritakoen sortak salbu. Sorta: gehienez 1.000 tm
Koipea nahasten duten establezimenduak	Bi jardunbide-aukera: 1. Sartzen diren koko-olio gordinaren eta landare-olioetatik eratorritako produktuen sorten % 100, honako hauek salbu: glizerola, lezitina eta goma, b) letran aipatu ez diren animalia-koipeak, c) letran aipatu ez den arrain-olioa, elikagaien industriatik berreskuratutako olioak eta pentsuetan erabiltzeko nahastutako koipeak. 2. Pentsuetarako nahastutako koipe-sorten % 100 aztertzea. Agintaritza eskudunari hautatutako aukera jakinarazi behar zaio. Sorta: gehienez 1.000 tm
Ekoizpen-animalietara bideratutako pentsu konposatuen ekoizleak	Sartzen diren koko-olio gordinaren eta landare-olioetatik eratorritako produktuen sorten % 100, honako hauek salbu: glizerola, lezitina eta goma, b) letran aipatu ez diren animalia-koipeak, c) letran aipatu ez den arrain-olioa, elikagaien industriatik berreskuratutako olioak eta pentsuetan erabiltzeko nahastutako koipeak. Produktu horiek dituzten pentsu eraldatuen sortetan % 1eko maiztasuna duen laginketa. Sorta: gehienez 1.000 tm

Araudi berriak animalia-elikaduraren sektoreko operatzaileentzat dituen ondorioak

Beste alde batetik, **Dioxinen kontrola** atalean zehazten da operatzaileak modu sinesgarrian frogatzen badu, aintzat har daitekeela partida homogeneoa arau honetan (2. puntua) aldez aurretik definitutako gehienezko sorta baino handiagoa izateko aukera.



Halaber, pentsuen operatzaile bat sorta aztertu behar izatetik salbuetsita egon liteke (bere APPCCaren menpeko kontrolera mugatuko da), baldin eta:

1. Sorta edo produktua aldez aurretik ekoizte-, eraldatze- edo banatze-faseren batean aztertu bada.
2. Bat badator arestian arauak ezarritako betekizunekin.

Nolanahi ere den, **produktuak** ematen direnean, aztertu direla edo kontrolpean daudela (kasuaren arabera) ziurtatzen duen **egiaztagiri batekin batera** eman behar dira

beti.

Azkenik, **operatzaileak** laginak aztertzen dituen **laborategia nahitaez bideratu behar du, emaitza positiboen jakinarazpena agintaritzaren eskudunari helaraz diezaion**, baita beste estatu kide bateko laborategietara edo hirugarren herrialde batera bidaltzen denean ere.

5. **Biltegitatu eta Garraiatzeari** dagokionez, ezarri da **landare-koipeekin, olioekin edo horien eratorrieekin erabilitako edukiontzia** modu **esklusiboan** erabili eta kutsa daitezkeen bestelako merkantzetatik **bereizita** eduki behar direla.

EGUTEGIA ETA BAIMENAK

225/2012 Araudia 2012ko irailaren 16az geroztik ezar daiteke, eta Europako Batzordeak aurreikusi du araua bi urteren buruan (2014ko martxoaren 16an) berrikusi ahal izango dela, bere ezarpena baloratze aldera.

Beste alde batetik, araudira egokitzeko helburuarekin, animalia-elikaduraren sektoreko operatzaileek beharrezko baimena eskatu beharko diote dagokien autonomia-erkidegoko agintaritzaren eskudunari, baldin eta euren jarduerak Araudian jasota badaude.

Araudi berriak animalia-elikaduraren sektoreko operatzaileentzat dituen ondorioak



ERREFERENTZIA DOKUMENTAZIOA

- [225/2012 Araudia](#)
- [183/2005 Araudia](#)
- [Alemanian dioxinekin kutsatutako pentsuen inguruko jardueri buruzko azken txostena](#). ELIKA.
- Ana Hurtado, *Control de dioxinas en alimentación animal*. Mundo Cesfac. 2012ko iraila, 17. zk.
- Leonor Algarra, [Nueva normativa de control de dioxinas. Implicaciones para la administración](#). Ponencia Jornadas de Avicultura 2012.
- AESAN. [Disminuye la exposición de dioxinas y bifenilos policlorados \(PCBS\) por ingestión de alimentos](#)
- [ELIKA Kontsumitzailearentzat - Dioxinak](#)
- [Substantzia gogaikarrien fitxak - Dioxinak](#)
- [Pentsuen arriskuen mapa](#)
- [Wiki](#)
- [Animalien elikadurako higienari eta APPCC Sistemen ezarpenari buruzko esku-liburuak](#)